

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

2134

EBAZPENA, 2017ko martxoaren 31koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, zeinaren argitara ematen baita Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko apirilaren 13ko Aginduan aurreikusi laguntzen pertsona onuradunen zerrenda. Agindu horren bitartez, 2016rako, minimis araubidearen barruan, EAEko esnetarako behi-azienden ustiatagietarako eta untxi-hazkuntzako ustiatagietarako laguntzetarako deialdia egiten da.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko apirilaren 13ko Aginduz, 2016rako, EAEko esnetarako behi-azienden ustiatagietarako eta untxi-hazkuntzako ustiatagietarako laguntzetarako deialdia egiten da; hala, EAEko esnetarako behi-azienden ustiatagietan eta eta untxi-hazkuntzako ustiatagietan, jarduerak aurrera egin dezan; hartarako, ustiatagi haiei laguntzak emanez, dituzten zailtasunak gainditu ditzaten.

Aipatu aginduaren zazpigarren puntuan ezarritako konplitzearren, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren bidez, esleitu egin dira eskatutako laguntzak.

Horidela eta, ebazpenak esleipendunei jakinaraziz aitzakia, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan 2. paragrafoko bigarren atalean xedatutakoarekin bat etorrita (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ondoko aginduan aurreikusitako laguntzen pertsona onuradunen zerrenda argitara ematea, jende oro jakitun izan dadin: Agindua, 2016ko apirilaren 13koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, 2016rako, minimis araubidearen barruan, EAEko esnetarako behi-azienden ustiatagietarako eta untxi-hazkuntzako ustiatagietarako laguntzetarako deialdia egiteko dena.

Argitaratze hori honako helbide elektronikoetan egiten da: «http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/minimis-vacuno-leche-cunicolas/web01-a2nekabe/es/» y «<http://www.euskadi.eus/dirulaguntza/minimis-esne-behiak-untxiak/web01-a2nekabe/eu/>»

Bigarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Hilabeteko epea emango da horretarako, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko martxoaren 31.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
IKERNE ZULUAGA ZAMALLOA.